

PASAIA (DONIBANE) / Zabaldu zenetik liburutegiak 100 bazkidetik gora lortu ditu.

Liburutegiaren Aldeko Batzordekoak pozik daude izan duen harrerarekin

Urko Etxebeste

Bi aste eskas dira Donibaneko Itsas Mendi liburutegia zabaldu zutela, eta dagoeneko 100 bazkidetik gora ditu. Horregatik, bai liburuzaina bai Donibaneko Liburutegiaren Aldeko Batzordekoak harritutak eta pozik agertu dira.

Urte luzetako lanaren ondoren, eta Pasaia Udalaren laguntzarekin, apirilaren 28an inauguratu zuten ofizialki Itsas Mendi Udal Liburutegia. Espero baino harrera hobea izan du. Arratsaldero etortzen dira haurrak eskolako lanak eta bestelako ekimenak burutzera. Hainbestetan amestutakoa egi bihurtu da, adierazi diote Hitzari Liburutegiaren Aldeko Batzordeko kideek.

Dena dela, gaztetxoek bestelako zerbitzuak eskatzen hasi dira dagoeneko. Horien artean, Internet: Edozein lan egiteko, kontsulta moduan, ordenagailu bat eta Internet izateko aukera proposatu dute erabiltzaile askok. Horregatik, Udalean ordenagailua eta inpresora jartzeko eskaera egina dute honez gero.

Beste Liburutegiekin loturak

Itsas Mendi Udal Liburutegian dauden liburuak Itsas Mendi elkarteak urte askotan bildutakoak dira. Erabiltzaileek behar duten libururen bat ez badago, Pasaia beste liburutegietan, sistema informatiko berezi batekin, eskatzeko aukera dago. Oraindik, ordea, zerbitzu hori ez dute jarri abian Donibanen. Aurki izango da martxan. Pozik daude hala ere sanjuandarrak bibliotekarekin.